

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Lehendakaritza Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 45/2015 FORU DEKRETUA, mar-
txoaren 24koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko
toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua
kalkulatzeko irizpideak eta epeak ezartzen dira.**

Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116 ter artikuluan, toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko oinarriko irizpideak jasotzen dira.

Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 2. xedapen gehigarriak Bizkaiko Lurralde Historikoari aitortzen dizkio finantza-tutoretzan aritzeko dituen berezitasunak.

Hain zuzen, adierazten du arabide bereziarekin jarraituko duela udal-arloan ekonomiaren eta finantzaketaren arabideari dagokionez, Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera; ondorio horietarako, Foru Aldundiak toki-erakundeek benetako kostuaren kalkulurako ematen dituzten irizpideak garatuko ditu, eta kostu horren jakinarazpena jasoko du.

Ildo horretan, Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauan arautzen da zerbitzuen benetako kostuari buruzko kontzeptua.

Zehatzago, honako hau ezartzen du foru arauaren 9.2 artikulua: zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko epeak eta irizpideak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako foru-dekretu baten bidez arautuko dira, eta Bizkaiko toki-erakundeek Bizkaiko Foru Aldundian finantza-tutoretzari dagokionez eskuduna den sailari jakinarazi behar diote zein den erakunde bakoitzak ematen duen zerbitzu bakoitzaren benetako kostua, sail horrek argitaratu ditzan.

Bestalde, Bizkaiko erakunde lokalen aurrekontu-egitura partzialki aldatzen duen uztailaren 29ko 96/2014 Foru Dekretuan, programen araberrako sailkapen zehatzago bat aurkezten da, toki-erakundeek zerbitzuen benetako kostua zehatzago identifikatzeko aukera emango duena.

Foru dekretu honen bidez ezartzen dira, batetik, toki-erakundeek emandako zerbitzuen kostua kalkulatzeko metodologia eta, bestetik, kalkulu horri buruzko informazioa bidaltzeko epeak.

Dekretu honetan, zerbitzuon kostua kalkulatzeko informazioa emateko oinarriko eredu bat proposatzen da.

Ez da inola ere ulertu behar kontabilitate analitikoaren eredu gisa edo udalen barne-kudeaketaren eredu gisa; hori barik tresna malgu bat izango da Bizkaiko toki-erakunde guztiei aplikatzeko modukoa, erakundeon ezaugarri soziodemografikoak eta barne-antolamendua edozein direla ere.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak Eudelekin, lurraldeko errealitate desberdinen erakusgarri diren udalekin —Eudelek proposatuta— eta Bizkaian udal zerbitzuak kudeatzen dituzten erakunde publikoekin egin du lan.

1. kapituluan, arauaren helburuari eta aplikazio-eremuari buruzko xedapen orokorrak jasotzen dira.

2. kapituluan, benetako kostua kalkulatzeko printzipioak eta jarraibideak jasotzen dira.

3. kapituluan, informazioa emateari eta informazioaren publikitateari buruzko arau batzuk jasotzen ditu;

Departamento de Presidencia

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia
45/2015, de 24 de marzo, por el que se establecen los pla-
zos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los ser-
vicios prestados por las entidades locales del Territorio
Histórico de Bizkaia.**

La Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en su artículo 116 ter contiene los criterios básicos relativos al cálculo coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales.

La Disposición Adicional 2.ª de la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, reconoce las peculiaridades del Territorio Histórico de Bizkaia en materias derivadas del ejercicio de la tutela financiera.

En concreto, señala que continuará conservando su régimen especial en materia municipal en lo que afecta al régimen económico-financiero en los términos de la Ley del Concierto Económico, y a estos efectos, la Diputación Foral desarrollará los criterios de cálculo y recibirán la comunicación del coste efectivo de los servicios que prestan las entidades locales de sus respectivos territorios.

En este sentido, la Norma Foral 5/2013, de 12 de junio, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad de las entidades locales de Bizkaia regula este concepto de coste efectivo de los servicios.

En concreto, el artículo 9.2 de la mencionada Norma Foral establece que, mediante Decreto Foral, la Diputación Foral de Bizkaia se regularán los plazos y los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios y que las entidades locales de Bizkaia comunicarán, de acuerdo con lo que se establezca reglamentariamente, dicha información al Departamento de competente en materia de tutela financiera de la Diputación Foral de Bizkaia para su publicación.

Por otra parte, el Decreto Foral 96/2014, de 29 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifica parcialmente la estructura presupuestaria de las entidades locales de Bizkaia, presenta una mayor desagregación de la clasificación por programas que permitirá identificar con mayor precisión el coste efectivo de los servicios locales.

Este Decreto Foral tiene como finalidad establecer la metodología de cálculo y plazos de remisión de la información referida al cálculo del coste de los servicios prestados por las entidades locales.

En este Decreto se propone un modelo básico de suministro de información para el cálculo del coste de los servicios.

En ningún caso ha de entenderse como un modelo de contabilidad analítica o de gestión interna municipal, sino como un instrumento con la flexibilidad necesaria para que sea de aplicación a la totalidad de las entidades locales de Bizkaia, independientemente de sus características sociodemográficas y de organización interna.

Para la definición, la Diputación Foral de Bizkaia ha trabajado con Eudel, con municipios representativos de las distintas realidades del territorio a propuesta de Eudel, y con Instituciones públicas encargadas de gestionar servicios municipales en Bizkaia.

El capítulo 1 contiene disposiciones generales sobre el objeto y al ámbito de aplicación de la norma.

El capítulo 2 contiene los principios y las directrices para el cálculo del coste efectivo.

El capítulo 3 recoge determinadas previsiones relativas al suministro de la información y a su publicidad.

Xedapen iragankorreen ezartzen da Bizkaiko Foru Aldundiak, salbuespenez, 2015. urtean honela argitaratuko dituela 2014. urteari buruzko datuak: toki-erakundeek emandako aurrekontu-likidazioetan jasotako informazioa oinarri hartuta eta orokortasun maila handiago batekin.

Azken xedapenetako lehenengoan ezartzen da Lehendakariak foru diputatuari ahalmena ematen zaiola bere eskumenen arloan foru dekretu honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan eta beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Azken xedapenetako bigarrenean, berriz, arautzen da dekretua noiz jarriko den indarrean.

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— *Foru dekretuaren helburua*

Foru dekretu honen bidez, toki-erakundeek zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko irizpideak eta epeak arautzen dira, toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan ezarritakoa garatzeko.

2. artikulua.— *Aplikazio-eremua*

Foru dekretu honetan ezartzen denarekin bat, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeek zuzenean edo lotutako zein mendeko organo eta erakundeek bitartez ematen dituzten zerbitzu guztien benetako kostua kalkulatu beharko dute, apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Bizkaiko toki-erakundeek aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ekainaren 12ko 5/2013 Foru Arauan ezarritakoarekin bat.

2. KAPITULUA

KALKULUA EGITEKO METODOLOGIA

3. artikulua.— *Zerbitzuen benetako kostuaren kalkulua*

1. Foru dekretu honetan ezarritako irizpideak kostu bakoitzari aplikatzearen emaitza da Bizkaiko toki-erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua, eta bi osagai hauek batuta zehaztuko da: zuzeneko kostuak, zerbitzu bakoitzari eskusiboki lotuak, eta, zeharkako kostuak, bitartekoak direnak nahiz egiturari dagozkienak. Horretarako, betiere, dekretu honetan ezarritako irizpideak erabiliko dira.

2. Aitortutako betebeharrekin (aurrekontuei aplikatu gabeko betebeharrak barne) identifikatuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, toki-erakundeek aurrekontu orokorren gastuaren gauzatzeari buruzko datuen arabera, eta, hala badagokio, lotutako edo mendeko organo eta erakundeetan onetsitako urteko kontuen arabera; kontu horiek, hain zuzen, benetako kostua kalkulatu, jakinarazi eta publikatuko den ekitaldiaren aurreko ekitaldikoak izango dira. Horretarako, Bizkaiko erakunde lokalen aurrekontu-egitura partzialki aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 96/2014 Foru Dekretuan zehaztutako programen araberrako sailkapena aplikatuko da.

4. artikulua.— *Zerbitzuei egotzi dakizkiekeen zuzeneko gastuak*

Toki-erakundeek eta mendeko edo aurrekontu murriztaileei lotutako erakunde zein organoen kasuan, gastu hauek direla-eta zuzenean egotzi dakizkiekeen zenbatekoak batuz kalkulatu da zuzeneko gastua zerbitzu bakoitzerako:

- Langile-gastuak: gastuari buruz indarrean den sailkapen ekonomikoaren 10. artikulutik 16. artikulura.
- Ondasun eta zerbitzuetako gastu korranteak: gastuari buruz indarrean den sailkapen ekonomikoaren 20. artikulutik 23. artikulura.
- Finantza-gastuak.

La disposición transitoria establece que, excepcionalmente, la publicación del año 2015 referida a los datos de 2014 se realizará por la Diputación Foral de Bizkaia a partir de la información contenida en las liquidaciones de presupuestos suministradas por las entidades locales y con un mayor grado de agregación.

La disposición final primera recoge la habilitación que se otorga al diputado foral de Presidencia para dictar, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones y adoptar las medidas necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en este Decreto Foral.

La disposición final segunda regula la entrada en vigor.

CAPÍTULO 1

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— *Objeto del Decreto Foral*

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación de los criterios de cálculo del coste efectivo de los servicios locales y los plazos en desarrollo de lo previsto en el artículo 9 de la Norma Foral 5/2013, de 12 de junio, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad de las entidades locales.

Artículo 2.— *Ámbito de aplicación*

Las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia deberán calcular, de acuerdo con lo previsto en este Decreto Foral, los costes efectivos de todos los servicios que presten directamente o a través de entidades y organismos vinculados o dependientes de conformidad con lo previsto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, y la Norma Foral 5/2013, de 12 de junio, de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Bizkaia.

CAPÍTULO 2

METODOLOGÍA DE CÁLCULO

Artículo 3.— *Cálculo del coste efectivo de los servicios*

1. El coste efectivo de los servicios prestados por las entidades locales de Bizkaia es el resultado, para cada uno de ellos, de la aplicación de los criterios contenidos en el presente Decreto Foral, y vendrá determinado por la agregación de dos componentes: costes directos, exclusivamente asociados a cada servicio, y costes indirectos, tanto mediales como de estructura, determinados con arreglo a los criterios de imputación establecidos en el presente Decreto.

2. Los costes directos e indirectos se identificarán con las obligaciones reconocidas, incluyendo también las obligaciones pendientes de aplicación a presupuestos, conforme a los datos de ejecución de gasto de los presupuestos generales de las entidades locales, y, en su caso, con las cuentas anuales aprobadas de las entidades y organismos vinculados o dependientes, correspondientes al ejercicio inmediato anterior a aquel en el que el coste efectivo se vaya a calcular, comunicar y publicar. A estos efectos se aplicará el nivel de desagregación de la clasificación por programas contenido en el Decreto Foral 96/2014, de 29 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia por la que se modifica parcialmente la estructura presupuestaria de las entidades locales de Bizkaia.

Artículo 4.— *Gastos directos imputables a los servicios*

En los casos de las entidades locales, y organismos y entidades dependientes o vinculados sujetos a presupuestos limitativos se calculará para cada servicio el gasto directo mediante la agregación de los importes que les sean directamente imputables en los siguientes términos:

- Gastos de personal: artículos 10 a 16 de la clasificación económica del gasto en vigor.
- Gastos corrientes en bienes y servicios: artículos 20 a 23 de la clasificación económica del gasto en vigor.
- Gastos financieros.

d. Dagokion ekitaldian eta aurrekoetan eginiko inbertsioa amortizatzearen ondoriozko gastuak, dagozkien ibilgetuen balio-bizitzaren arabera eta aplikatu beharreko kontabilitate-araudia kontuan hartuta toki-erakundeak aplikatzen dituen irizpideen arabera kalkulatuak.

Azpiegiturek eta balio-bizitza mugagabea duten toki-erakundearen ondoreko ondasunek ez dute edukiko amortizazio-gasturik lotuta.

Horrez gainera, ibilgetu immaterial edo ukiezina amortizatzearen ondoriozko gastuak jasoko dira baldin eta zerbitzuarekin zuzenean erlazionatuta badaude.

e. Transferentzia arruntetan eginiko gastuak, baldin eta zuzenean erlazionatuta badaude kalkulatu beharreko zerbitzuekin.

f. Goian aipatu ez den edozein gastu arrunt ez-finantzario, baldin eta zerbitzuarekin erlazionatuta badago.

5. artikulua.—Zeharkako gastuak eta gastu horiek zerbitzuei egozte

1. Aurrekontuaren likidazioan zerbitzu batzuei buruzko informazioa batuta jasotzen bada, lotutako gastuak bitarteko kostutzat hartuko dira, eta gastuaren bolumenaren proportzioan egotziko zaizkio zerbitzu bakoitzari.

2. Aurreko 1. puntuan adierazitako banaketa eginda, gastu-politiken administrazio orokorrari buruzko programa-taldeetan jasotako gastuak —gastu horiek ere bitarteko kostutzat hartuko dira— proportzionalki egotziko zaizkio programa-talde edo programa bakoitzari, gastuaren bolumenaren arabera.

3. Azkenik, 9. eta 0 gastu arloan jasotako gastuak —zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko egitura-gastutzat jotakoak— proportzionalki egotziko zaizkio programa-talde edo programa bakoitzari, gastuaren bolumenaren arabera.

6. artikulua.—Gastuak zerbitzuen zeharkako kudeaketan, kudeaketa itunduan edo kudeaketa mankomunatuan

1. Zeharkako kudeaketan (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean zerbitzu publikoak kudeatzeko aurrez ikusitako kontratu moten bidez) eta kudeaketa mankomunatuan edo kudeaketa itunduan, toki-erakundeak kontratatari ordaindutako kontraprestazio ekonomiko guztiek zehaztuko dute benetako kostua; kontratuaren prezioaren ondoriozko kontraprestazioak eta, hala bada, gorkio, zerbitzuaren ustiapenerako edo prezioaren estaldurarako diru-laguntzak ere kontuan hartuko dira.

2. Zeharkako kudeaketan, kudeaketa mankomunatuan edo kudeaketa itunduan kontratistaren, mankomunitatearen edo partzuergoaren ordainsaria zuzenean erabiltzaileengandik jasotzen bada, erabiltzaileek ordaindutako tarifen ondoriozko sarrerek zehaztuko dute benetako kostua, bai eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundeak zerbitzuaren prezioa dela-eta jasotzen dituen diru-laguntzek ere.

3. KAPITULUA PUBLIZITATEA

7. artikulua.—Informazioa eta publizitatea ematea

1. Bizkaiko toki-erakundeek, urteko azaroaren 1a baino lehen, zerbitzuen benetako kostuari buruzko informazioa bidaliko diote Bizkaiko Foru Aldundiari, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera. Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak emandako ereduaren arabera egingo da bidalketa hori.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak, abenduaren 1a baino lehen, dekretu honen eranskinean jasotako informazioa argitaratuko du, Bizkaiko toki-erakundeek bidalitako informazioa oinarri izanda.

d. Gastos derivados de la amortización de la inversión realizada en el ejercicio y en los anteriores, calculados en función de la vida útil de los inmovilizados correspondientes y según los criterios que aplique la entidad local de acuerdo con la normativa contable que resulte de aplicación.

Las infraestructuras y los bienes del patrimonio de la entidad local que tengan una vida útil ilimitada, no tendrán asociado gasto de amortización.

Asimismo, se incluirán los gastos derivados de la amortización de inmovilizado inmaterial o intangible directamente relacionados con la prestación del servicio.

e. Gastos en transferencias corrientes siempre que estén directamente relacionados con la prestación de los servicios cuyo coste es objeto de cálculo.

f. Cualquier otro gasto corriente no financiero no señalado anteriormente que tenga relación con la prestación del servicio.

Artículo 5.—Gastos indirectos e imputación a los servicios

1. Si en la liquidación del presupuesto se recoge información agregada correspondiente a varios servicios, los gastos asociados se considerarán costes mediales, y se imputarán a cada uno de ellos proporcionalmente a su volumen de gasto.

2. Uno vez hecho el reparto indicado en el punto 1 anterior, los gastos recogidos en los grupos de programas relativos a la administración general de las políticas de gasto, que también tendrán la consideración de costes mediales, se imputarán proporcionalmente a cada grupo de programas o programa atendiendo a su volumen de gasto.

3. Por último, los gastos recogidos en el área de gasto 9 y 0, considerados de estructura a los efectos de cálculo del coste efectivo de los servicios, se imputarán proporcionalmente a cada grupo de programas o programa atendiendo a su volumen de gasto.

Artículo 6.—Gastos en los casos de gestión indirecta, consorciada o mancomunada de los servicios

1. En los casos de gestión indirecta, mediante las distintas formas previstas para el contrato de gestión de servicios públicos en el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, así como en los casos de gestión mancomunada o consorciada, el coste efectivo vendrá determinado por la totalidad de las contraprestaciones económicas que abone la entidad local al contratista, mancomunada o consorcio, incluidas las contraprestaciones en concepto de precio del contrato, así como, en su caso, las subvenciones de explotación o de cobertura del precio del servicio.

2. En los casos de gestión indirecta, mancomunada o consorciada en los que la retribución del contratista, mancomunada o consorcio se perciba directamente por éstos de los usuarios, el coste efectivo vendrá determinado por los ingresos derivados de las tarifas que aquellos abonen, así como, en su caso, por las subvenciones de cobertura del precio del servicio que pudieran corresponder a la entidad local a la que corresponde la titularidad del servicio.

CAPÍTULO 3 PUBLICIDAD

Artículo 7.—Suministro de la información y publicidad

1. Las entidades locales de Bizkaia, antes del 1 de noviembre de cada año, remitirán a la Diputación Foral de Bizkaia la información relativa al coste efectivo de los servicios, de acuerdo con lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta remisión se efectuará de acuerdo con los modelos facilitados por el Departamento de Presidencia de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. La Diputación Foral de Bizkaia publicará, antes del 1 de diciembre de cada año en su portal web, sobre la base de la información anterior remitida por las entidades locales de Bizkaia, la información prevista en el anexo de este Decreto.

XEDAPEN IRAGANKOR

Bakarra. — Benetako kostua argitaratzea

Salbuespen gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak 2015eko abenduaren 1a baino lehen argitaratuko du 2014. ekitaldiari buruzko informazioa; horretarako, bakar-bakarrik hartuko dira kontuan programen araberrako sailkapenean jaso eta toki-erakundeek aitortutako bete-beharren guztizko zenbatekoak —eginkizun-taldearen mailari dagozkionak—, betiere toki-erakundeok emandako aurrekontu orokorren likidazioen arabera.

Toki-erakundeek 7. artikuluan ezarritakoaren arabera egin behar duten lehenengo informazio-bidalketa 2015. urteari dagokiona izango da, eta 2016ko azaroaren 1a baino lehen egin beharko dute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. — Arauak emateko gaikuntza

Lehendakaritzako foru diputatuari ahalmena ematen zaio bere eskumenen arloan foru dekretu honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan eta beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2015eko martxoaren 24an.

Ahaldun Nagusia,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

Lehendakaritzako foru diputatua,
UNAI REMENTERIA MAIZ

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única. — Publicación del coste efectivo

Con carácter excepcional, la información relativa al ejercicio 2014 se publicará por la Diputación Foral de Bizkaia antes de 1 de diciembre de 2015, comprendiendo exclusivamente los importes totales de las obligaciones reconocidas por las entidades locales referidos al nivel de grupo de función contenidas en la clasificación por programas, de acuerdo con las liquidaciones de presupuestos generales suministradas por las citadas entidades.

La primera remisión de información que, de acuerdo con el artículo 7, deban realizar las entidades locales, será la referida al ejercicio 2015, y se realizará antes del 1 de noviembre del 2016.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. — Habilitación normativa

Se habilita al diputado foral de Presidencia para dictar, en el ámbito de sus competencias, las disposiciones y adoptar las medidas necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en este Decreto Foral.

Segunda. — Entrada en vigor

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 24 de marzo de 2015.

El Diputado General,
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

El diputado foral de Presidencia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

ERANSKINA

Derrigorrean eman beharreko zerbitzuak

Deskripzioa	Programa-taldea edo programak	Zenbatekoa guztira	Erreferentziako unitateak*	Kudeatzeko era**
Argiteria publikoa	165			
Hilerrria eta hileta-zerbitzuak	164			
Hondakinen bilketa	1621			
Bideetako garbiketa	163			
Edateko uraren etxeko hornikuntza	161			
Estolderia	160			
Biztanleguneetarako sarbideak eta bide publikoen zolaketa	1531/150P			
	1532/150P			
Liburutegi publikoa (5.000 biztanle gora)	3321/330P			
Parke publikoa (5.000 biztanle gora)	171/170P			
Hondakinen tratamendua (5.000 biztanle gora)	1623			
Babes zibila 20.000 biztanle gora)	135/130P			
Premia sozialeko egoeren ebaluazioa eta informazioa eta gizartean) baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonentzako berehalako laguntza. (20.000 biztanle gora	231/230P			
Suteak prebenitzea eta itzaltzea (20.000 biztanle gora)	136/130P			
Erabilera publikoko kirol-instalazioak (20.000 biztanle gora)	342/340P			
Bidaia-herri-garraio kolektiboa (50.000 biztanle gora)	4411/440P			
Hiri-ingurumena (50.000 biztanle gora)	172/173/1622/170P			

Derrigorrezkoak ez diren zerbitzuak

Deskripzioa	Programa-taldea edo programak	Zenbatekoa guztira	Erreferentziako unitateak*	Kudeatzeko era**
Liburutegi publikoa (5.000 biztanle edo gutxiago)	3321/330P			
Parke publikoa (5.000 biztanle edo gutxiago)	171P/170P			
Hondakinen tratamendua (5.000 biztanle edo gutxiago)	1623			
Babes zibila (20.000 biztanle edo gutxiago)	135/130P			
Premia sozialeko egoeren ebaluazioa eta informazioa eta gizartean baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonentzako berehalako laguntza (20.000 biztanle edo gutxiago)	231P/230P			
Suteak prebenitzea eta itzaltzea (20.000 biztanle edo gutxiago)	136/130P			
Erabilera publikoko kirol-instalazioak (20.000 biztanle edo gutxiago)	342/340P			
Bidaia-herri-garraio kolektiboa (50.000 biztanle edo gutxiago)	4411/440P			
Hiri-ingurumena (50.000 biztanle edo gutxiago)	172/173/1622/170P			
Hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua	166			
Herritarren segurtasunaren eta mugikortasunaren arloan emandako beste zerbitzu batzuk	132,133,134/130P			

Deskripzioa	Programa-taldea edo programak	Zenbatekoa guztira	Erreferentziako unitateak*	Kudeatzeko era**
Etxebizitza	152/150P			
Hirigintza	151/150P			
Parke eta lorategien arloan emandako beste zerbitzu batzuk	171P/170P			
Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-sustapenaren arloan emandako beste zerbitzu batzuk	231P/230P			
Kulturaren arloan emandako beste zerbitzu batzuk	3322/333/334/335/ 336/337/338/330P			
Kirolaren arloan emandako beste zerbitzu batzuk	341/340P			
Garraio publikoaren arloan emandako beste zerbitzu batzuk	4412/442/443/440P			
Ekonomia-sustapena	410/412/414/415/419/ 420/422/423/425/430/ 431/432/433/439			

Gainerakoak

(P): Partziala. Programa-taldearen edo programen zati bat lotuta dago aipatutako zerbitzuarekin.

* Erreferentziako unitateak: Foru agindu bidez zehaztuko dira zerbitzu bakoitzari buruz jakinarazi beharreko unitateak

** Honako hauen artean adieraziko da dagokion kudeaketa era:

- Udal erakundearen zuzeneko kudeaketa.
- Udal erakunde erakunde autonomoaren zuzeneko kudeaketa.
- Enpresa-erakunde publikoaren zuzeneko kudeaketa.
- Tokiko merkataritza-batzordearen zuzeneko kudeaketa.
- Emakida bidezko zeharkako kudeaketa, emakidadunak arriskuak bere gain hartuta zerbitzua ematen duenean.
- Interesean oinarritutako zeharkako kudeaketa: toki-erakundeak eta enpresaburuak partekatzen dituzte ustiapenaren emaitzak, kontratuan ezarritako proportzioan.
- Itun bidezko zeharkako kudeaketa.
- Ekonomia mistoko sozietate bidezko zeharkako kudeaketa. Kudeaketa mankomunatu.
- Administrazioen arteko lankidetzaz hitzarmen bidezko kudeaketa.
- Partzuergo bidezko kudeaketa.

ANEXO

Servicios de prestación obligatoria

Descripción	Grupo de programas o programas	Importe total	Unidades de referencia*	Forma de gestión**
Alumbrado público	165			
Cementerio y servicios funerarios	164			
Recogida de residuos	1621			
Limpieza viaria	163			
Abastecimiento domiciliario de agua potable	161			
Alcantarillado	160			
Acceso a los núcleos de población y pavimentación de las vías públicas	1531/150P 1532/150P			
Biblioteca pública (más de 5.000 habitantes)	3321/330P			
Parque público (más de 5.000 habitantes)	171/170P			
Tratamiento de residuos (más de 5.000 habitantes)	1623			
Protección civil (más de 20.000 habitantes)	135/130P			
Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social. (más de 20.000 habitantes)	231/230P			
Prevención y extinción de incendios(más de 20.000 habitantes)	136/130P			
Instalaciones deportivas de uso público (más de 20.000 habitantes)	342/340P			
Transporte colectivo urbano de viajeros (más de 50.000 habitantes)	4411/440P			
Medio ambiente urbano (más de 50.000 habitantes)	172/173/1622/170P			

Servicios no obligatorios

Descripción	Grupo de programas o programas	Importe total	Unidades de referencia*	Forma de gestión**
Parque público (menos o igual a 5.000 habitantes)	171P/170P			
Tratamiento de residuos (menos o igual a 5.000 habitantes)	1623			
Protección civil (menos o igual a 20.000 habitantes)	135/130P			
Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social(menos o igual a 20.000 habitantes)	231P/230P			
Prevención y extinción de incendios(menos o igual a 20.000 habitantes)	136/130P			
Instalaciones deportivas de uso público (menos o igual a 20.000 habit.)	342/340P			
Transporte colectivo urbano de viajeros (menos o igual a 50.000 habit.)	4411/440P			
Medio ambiente urbano (menos o igual a 50.000 habitantes)	172/173/1622/170P			
Evacuación y tratamiento de aguas residuales	166			
Otros servicios prestados en el ámbito de seguridad y movilidad ciudadana	132, 133, 134/130P			
Vivienda	152/150P			
Urbanismo	151/150P			
Otros servicios prestados en el ámbito de parques y jardines	171P/170P			
Otros servicios prestados en el ámbito de servicios sociales y promoción social	231P/230P			

Descripción	Grupo de programas o programas	Importe total	Unidades de referencia*	Forma de gestión**
Otros servicios prestados en el ámbito de la cultura	3322/333/334/335/ 336/337/338/330P			
Otros servicios prestados en el ámbito del deporte	341/340P			
Otros servicios en el ámbito del transporte público	4412/442/443/440P			
Promoción económica	410/412/414/415/419/ 420/422/423/425/430/ 431/432/433/439			
Resto				

(P): Parcial. Se refiere a que parte del grupo de programas o programas tiene relación con el servicio mencionado.

* Unidades de referencia: Se determinará por Orden Foral las unidades a informar en cada uno de los servicios.

** Se indicará la forma de gestión que proceda de entre las siguientes:

- Gestión directa por la entidad local.
- Gestión directa por organismo autónomo de la entidad local.
- Gestión directa por entidad pública empresarial.
- Gestión directa por sociedad mercantil local.
- Gestión indirecta mediante concesión, gestionando el concesionario el servicio a su riesgo y ventura.
- Gestión indirecta interesada, compartiendo la entidad local y el empresario los resultados de explotación en la proporción fijada en el contrato.
- Gestión indirecta por concierto.
- Gestión indirecta por sociedad de economía mixta. Gestión mancomunada.
- Gestión por convenio de colaboración interadministrativo.
- Gestión consorciada.